# Bizi esperientziak

# Experiencias de vida



**Argentinatik etorrita, Javier Zabala Donostiako Zubiri-Manteo Institutuan sartu da.**
**Artikulu honetan lehen pertsonan kontatuko dizkigu bere bizipenak.**

**Procedente de Argentina, Javier Zabala se ha integrado en el Instituto Zubiri-Manteo de Donostia.**
**En este artículo nos cuenta en primera persona sus experiencias.**

**Javier Zabala Unzueta**

Eusko Jaurlaritzak duen "Euskal Herrirantz" izeneko beka programa baten bidez iritsi nintzen hona duela bi urte; eta honela hasi nintzen Marketing eta Merkataritza kudeaketa goi mailako zikloa ikasketa egiten Donostiako Zubiri-Manteo Ikastetxean.

Nire helburua, aurretik nuen prestakuntza gehitu eta beste herrialde batetan esperientzi berri bat bizitzea zen. Gaur dudan sentsazioa, ez da soilik nire asmoa betea ikustearena, baizik eta hemen igarotako denboran, hazi egin naizela, bizi egin naizela eta munduan dudan lekua ezagutu dudala sentitzea da. Dena ez da erraza izan, baina eragozpenak dira indartsu egiten zaituztenak eta zeure buruari gehiago eskatzera bultzatzen zaituztenak.

Zaila egiten zait hitz egokiak aurkitzea, kointzidentzia, kasualitatea, patua, baina ia dena era zehatz batean gertatu zen; "norbaitek" mugimendu bakoitza kontrolatu ahal izango balu bezala eta markatutako bidetik ateratzen utziko ez balizu bezala.

Nire gelakideei buruz pentsatzean, ezin dut nostalgia ekidin eta harridura datorkit burura. Inoiz ez nuke pentsatuko hain talde desberdinak honelako emaitza onak lortu ahal izango zituenik. Marketinean esango genuke " momentu egokian, leku egokian eta produktu onena". Nahiz eta teoria hau nahiko eztabaidagarria izan pertsonen ihardunean, gure taldean lortu zen eta institutuko mugak gainditu zituen adiskidetasuna sortuz.

Eztabaidagarria da baita ere, irakasle talde batek aurkikuntza hau egitea, eta edozein klase teoriko gaindituko zukeen bizi esperientzia bat piztea.

Goizeko eskolek arratsaldekoekin jarraitzen zuten beste desafio pertsonal batean, Euskara. Egunero bi ordu, bi urtetan zehar ez dira nahikoa izan, baina egunetik egunera euskaldunagoa izatearen poztasuna daukat. Orain aurrera jarraitzeko, denbora eta ahaleginaren esku dago, gero gerokoak.

Praktikak beste pauso bat izan zen, enpresa mundua ezagutu, jende berriarekin erlazionatu eta nire bilakaera ikusteko aukera eman zidaten. Ingalaterran beste praktika batzuk egiteko aukera izan dut, eta dudarik gabe pertsonalki eta profesionalki aurrera egiten lagundu didate. Beste kultura bat ikasi, idiosinkrasia eta balioa gehituz zentzu guztietan.

Azken asteetan, aukera berri bat aurkeztu zait eta beste etapa bat ikus dezaket, lan egonkortasuna. Ikasitako guztia denei erakutsi eta epe luzeko etorkizunean pentsatzeko garaia heldu zaidala dirudi.

Atzera begiratzean, iragana zenbat aldatu den ikus dezaket. Herrialde bat utzi dut, familia eta lagun asko beste batzuengatik aldatu behar izan ditut. Nire aiton-amonak hemendik joan, eta Argentinan etorkizun hobeago bat lortu zuteneko oroitzapena daukat, eta honek konfiantza eta indarra ematen dit. Orain nire bidea bilatzeko txanda da eta helbide bat daukat: Euskal Herria.

Llegué aquí hace poco más de dos años por un programa de becas del Gobierno Vasco que se llama Euskal Herrirantz. Y así empecé a cursar el ciclo de Comercio y Marketing en el Instituto Zubiri-Manteo de Donostia.

Mi objetivo era agregar valor a mi formación anterior y vivir una experiencia en otro país. Hoy tengo la sensación de que no sólo he cumplido mi propósito sino que durante este tiempo he crecido, he vivido y he descubierto mi lugar en el mundo. No todo ha sido fácil, pero son las adversidades las que te hacen fuerte y te obligan a exigirte más.

Me resulta difícil encontrar las palabras adecuadas, coincidencia, casualidad, destino, pero todo se dio de una manera casi exacta, como si "alguien" pudiera controlar cada movimiento y no te permitiese alejarte de la línea marcada.

No puedo evitar cierta nostalgia y hasta un poco de asombro al referirme a mis compañeros-as de clase. Nunca hubiera pensado que un grupo tan variopinto lograra tan buenos resultados. En Marketing diríamos "el momento justo, el lugar adecuado y el mejor producto". Teoría que resulta bastante cuestionable de aplicar en las personas y sin embargo se generó en esta clase y traspasó las fronteras del Instituto formando lazos de amistad.

Es incuestionable también, que un grupo de docentes forjaron este descubrimiento mutuo y fomentaron una experiencia de vida que sobrepasaba una clase teórica.

Las clases de la mañana se continuaban con las de la tarde en otro desafío personal; el Euskera. Dos horas diarias durante dos años no han sido suficiente, pero tengo la satisfacción de ser cada día más vasco parlante. Ahora es sólo cuestión de tiempo y esfuerzo para continuar, "gero gerokoak".

Las prácticas fueron otro escalón, que me permitió conocer un ámbito empresarial y relacionarme con nuevas personas que me dieron oportunidades y posibilidades para desarrollarme. He tenido la suerte de realizar otra experiencia práctica en Inglaterra que, sin duda alguna, ha sido otro crecimiento personal y profesional. Aprender otra cultura, idiosincrasia y seguir agregando valor en todo sentido.

En las últimas semanas, se me ha presentado una nueva oportunidad y otra etapa comienza a vislumbrarse: la estabilidad laboral. Es la hora de demostrar todo lo que se ha aprendido y empezar a pensar en un futuro a largo plazo.

Al volver la vista atrás, veo que ha pasado el tiempo y mucho ha cambiado. He dejado un país, familia, trabajo, muchos amigos y he optado por otros. Tengo la confianza y la fortaleza que me da el recuerdo de que mis abuelos se fueron de aquí buscando un futuro mejor y lo consiguieron en Argentina. Ahora es mi turno de buscar mi camino y ya tengo una dirección: Euskadi.